

Bidegoiandik
abiatuko dira
auto gidariak,
15:00etan ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2006-04-01 ▶ IV. urtea ▶ 852. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Euskaltzain oso izendatu dute Bernardo Atxaga asteasuarra

ERABAKIA ▶ Juan Mari
Lekuonaren hutsunea
betetzeko aukeratu dute

ARDURA ▶ Euskararen
zabaltzea ardura handigoz
hartuko duela adierazi du

BI ARLO ▶ «Idazterakoan
ni neu naiz; Euskaltzaindian
gizartea da nagusi» ▶ 3



Hodeiertz abesbatzaren doinuak Indiara iritsiko dira

TOLOSA ▶ Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE), Tolosako Udalak eta Indiako Harreman Kulturaletarako Kontseiluak bultzatutako ekimenari esker, Hodeiertz abesbatzak bira egingo du Indian hilarren 13tik 23ra bitartean. 10 egunetan hiru kontzertu eskainiko dituzte tolosarrek, Bangalore, Mumbai eta Delhi hirietan. Abesbatzakoan esanetan, «aukera paregabea dugu gure kultura munduan zabaltzeko». N. LATABURU ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

**Bederatzi
ordezkari
Kantu
Txapelketako
finalean**

Azkoitian ariko dira
gaur; Tolosaldeko
kantariak HITZArekin
hitz egin dute ▶ 5

TOLOSALDEA- LEITZALDEA ▶

**Kalean da
Aizpuru
preso
politiko
leitzarra**

Ettxerat-ek elkartasuna
adierazi dio Haimar
Ijurko lizartzarrari;
gose greban da ▶ 6, 7

Hobetu zure giroa, egokitu zure bizitza

Apirilak 1ean irekitzen dugu



HAIZE EGOKITUA

Gernikako Arbola enparantza, 2 behea • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel. 943 698 944 • e-mail: iturklima@gmail.com



IBAÑEZ-GOZONA gozotegitik gure bezeroei jakinarazten diegu, Gorosabel 8an kokaturik dagoen eraikineko botatze lanak dirauen bitartean Gorosabel 4ean (IFArean ondoan) izango garela.

Denda honetan ere kafetegia, gozotegia eta okindegia egongo dira. Orduetgia 07:00etatik 20:30era jarraian izango da astelehenetik igandera, astelehen arratsaldean itxita egongo delarik.


Telefono bidezko eskaerak ohiko telefono zenbakietan egin daitezke: 943 65 05 39 eta 943 65 18 35

-Barkatu eragozpenak-

KULTURA ▶

«Aukera paregabea dugu gure kultura munduan zabaltzeko»

Hodeiertz abesbatzak bira egingo du Indian, hilaren 13tik 23ra; ekimena TEEK, Tolosako Udalak eta Indiako Harreman Kulturaletarako Kontseiluak bultzatu dute



Ezker-eskuin: Enrique Azurza, Ana Arretxe, Edurne Blasco, Jokin Bildarratz eta Idoia Otegi. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Hodeiertz abesbatzak bira «garrantzitsu eta berezi» bati ekingo dio hil honen 13an, Indian barrena. 10 egunetan zehar hiru kontzertu eskainiko dituzte tolosarrek, Bangalore, Mumbai eta Delhi hirietan. Ekimenak aurrera egin du elkarlan «luz» baten ondorioz; Tolosako Ekinbide Etxearen (TEE) eta Indiako Harreman Kulturaletarako Kontseiluaren (ICCR) artean burututakoa, alegia.

Tolosako Udalak, TEEK eta Hodeiertzek atzo azaldu zituzten, hain zuzen, bira honen nondik norakoak, Donostian eginiko prentsaurrekoan. Ber-

tan izan ziren Tolosako alkate Jokin Bildarratz, TEEKo lehendakari Ana Arretxe, Hodeiertzeko zuzendari Enrique Azurza, Hodeiertzeko lehendakari Edurne Blasco eta TTEko biltzarkide Idoia Otegi. «Indian zehar kontzertuak emateko gonbidatzen duten lehenengo taldea da Hodeiertz, eta hori harro egoteko modukoa da», aitortu zuen Azurzak.

«Guztiek ere bat egin zuten «aukera paregabea» dela esaterakoan, «gure kultura folklorea eta abesbatza musika korala ezagutzera emateko». Bidaia honen jatorria duela bi urte eginiko Titirijai Jaialdian aurki daiteke, zeinean *Mundura lehioa* erakusketak India izan

baitzuen erreferente. Ondorioz, Indiak Espainian duen enbaxadorea Tolosara bidali zuen, eta bi erakundeen arteko harremanak sendotu egin ziren. Ordutik hartu-emanak «estutuak» izan dira, horren adierazle iaz Jokin Bildarratzek eta TTEko zenbait kidek Indiara burututako bidaia. «Iaz pentsatu genuen proiektua ez zela aurrera aterako, baina Idoia Otegi lan handia egin du gauzatu ahal izateko», adierazi zuen Arretxek.

«Abesbatzari enbidioa»

Hodeiertz taldeak bidalitako grabaketei esker ezagutzen du Indiako gobernuak abesbatza

KONTZERTUAK ▶

Hodeiertz abesbatzak 9 egunetan zehar bisitatuko dituen hirien eta egingo dituen txangoen aukeraketa Indiako gobernuak egin du. Apirilaren 13an helduko dira Delhira eta hiru kontzertu eskainiko dituzte.

EGUNEZ EGUN

Apirilaren 17an.

Bangaloren.

Apirilaren 19an. Mumbaiko JBT auditoriumean, Stop Gaps Choral Ensemble abesbatz indiarrekin batera.

Apirilaren 21an. Delhiko FICCI auditoriumean.

tolosarrak eginiko lana, eta taldeko lan honek duen «kalitate maila» goraiatu du. Hori dela eta, apirilaren 19an Mumbai eskainiko duten kontzertua «inguruko abesbatza garrantzitsuenarekin» antolatuko dute: Stop Gaps Choral Ensembleekin, hain zuzen ere. «Ilusio berezia pizten digu kontzertu honen», esan zuen Azurzak. Haiekin batera, «musika, teknika eta errepertorioen elkartrukean oinarritutako tailer batean hartuko dugu parte». Hainbat udal ordezkari ere hartuko dute parte bidaia honetan.

Bildarratzek «enbidioa» bota nahi izan zion abesbatzari: «Australiarako bidaiaren bueltan *Umama* kaleratu zutenez, *Umama II* eskatuko diegu Udaletik Indiatik bueltan». Nola ez, Azurzak enbidioa onartu zuen. Errepertorio zabala eskaini dute; nazioartekoa eta euskal folklorea, gehienbat. Indiar musikako bi piezekin ere ausartu dira Tolosakoak, nahiz eta oso «erritmo zailak» izan.

GIZARTEA ▶

Argindarra moztu egingo du Tolargik

Tolargik bere instalazioetan hobekuntza eta mantentze lanak egingen ari da eta, ondorioz, argindarra moztu egingo du, «bezeroei zerbitzu hobea emateko helburuz». Hala, astelehenean, 08:15etik 12:15era, Korreo kaleko 29, 31, 33 eta 35 zenbakietan moztuko dute argindarra, eta 08:15etik 09:15era Kale berbereko 44, 46 eta 50 zenbakietan.

UDALA ▶

TLS, Udalaren aldizkariaren 2. alea kalean

TLS aldizkariaren bigarren alea kaleratu berri du Udalak. Bertan, Udaleko jardunaren berri eman dute. Agerda 21, hiribus berriak... Iaz atera zen lehen alea eta uda atarian argitaratuko dute hirugarrena.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Laborategiak. Hurrengo deialdiak teknikoak, unibertsitate laguntzaileak, ospitaleak. 943 31 37 82.

Mantentze-lanak. Mekanikariak, gidariak. Hurrengo deialdiak udalete eta Foru Aldundiarentzako.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

Elbarrituak. Hurrengo deialdiak

Foru Aldundiarentzako. Informazioa

doan. 943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, haurtzaindegiko hezitzaileak, basozainak, garbitzaileak. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak.

Beasain, Bergara, Soraluez, Mutriku, Zizurkil, Mendara eta Anoetako udalek administrari laguntzaile lanpostuak bete behar dituzte. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 31 37 82.

Gidariak. Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak. Postu libreak Eusko Jaurilaritzan. Asteburuetan libre. 943 31 37 82.

ASTEASU ▶ EUSKARA

Atxaga, euskaltzain oso berria

Euskaltzaindiak izendatu zuen atzo idazle asteasuarra Juan Mari Lekuonaren hutsunea betetzeko

ERREDAKZIOA

Bernardo Atxaga asteasuarra da euskaltzain oso berria. Juan Mari Lekuona zenaren hutsunea betetzeko bozketa egin zuen atzo Euskaltzaindiak, Gasteizen duen ordezkari. Akademiaren arauak agintzen duten legez, Atxagak gehiengo osoa lortu zuen. Idazle asteasuarrek euskararen zabaltzea ardura handiagoz hartuko duela adierazi du: «Batetik bestera ibiltzen naiz idazle bezala, eta euskarari buruz hitz egiten dut. Orain ardura handiagorekin egingo dut hori».

Izendapenak etxekotu egiten diola gaineratu du euskaltzain oso berriak: «Euskal Herrian ez naiz asko egon. Zaila izan da harremana Euskal Herriarekin, eta honek etxekotu, adiskidetu egiten nau». ETaren su-etena ere mintzagai izan zuen: «Izugarrizko mesedea egiten dio hizkuntzari». Su-etenen aurreko egoerak «gizartea ahultzen zuen eta hizkuntza bera ere bai», azaldu zuen, eta zorteko dela Euskaltzaindian orain sartzen delako.

Jakina denez, Atxaga zen Juan Mari Lekuona euskaltzain zenaren hutsunea betetzeko hautagai bakarra. Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia eta Ana Toledo euskaltzainek aurkeztu zuten asteasuarren kandidatura.

Argitalpen eta sari ugari

Bernardo Atxaga Asteasun jaio zen 1951ko uztailaren 27an. Joseba Irazu Garmendia da haren benetako izena. Ekonomia Zientzietan lizentziatu zen Bilboko Unibertsitatetik, eta hainbat lanbidetan aritu izan zen (euskara irakaslea, irratiko gidoilaria, liburu-saltzailea, ekonomialaria...), hari

eta, azkenik, laurogeiko hamarkadaren hasiera aldera, literaturari bete-betean ekin zion arte.

Hainbat liburu argitaratu eta sari jaso ditu Atxagak bere ibilbidean. Eleberria, poesia eta haur eta gazte literatura jorratu ditu. Ondokoak dira adibide: *Ziutateaz I eta II* (1976), *Etiopia* (1978), *Obabakoak* (1988), *Gizona bere bakardadean* (1993), *Xola eta basurdeak* (1997), *Banbuloren istorio banbulotarrak* (1998), *Groenlandiako Lezioa* (1998), *Soinujolearen semea* (2003) eta *Lekuak* (2005). Sariak ez dira nolatanahikoak izan; besteak beste: Euskadi Saria, Espainiako Literatura Sari Nazionala, Kritika Saria, Eusko Ikaskuntza Saria eta Beterriko Liburua.



Bernardo Atxagak euskararekiko beste lotura bat izango du aurrerantzean. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

BERNARDO ATXAGA ▶ IDAZLEA ETA EUSKALTZAIN OSOA

«Idazterakoan ni neu naiz; Euskaltzaindian gizartea da nagusi»

Imanol Garcia ▶ Hautagai bakarra izanik, esperokoa zen Bernardo Atxaga euskaltzain oso izendatzea. Gurasoei, «euskaraz hezi eta suziri horri eutsi ziotelako», eta euskaldun berriei, «horiei gabe ni idazle izatea ez zelako posible izango», luzatu dizkie eskerrak.

Zer suposatzen du zuretzat izendapenak?

Berezia da. Pozik nago, eta baita kezkatuta ere. Orain arte beti seguru ibili naiz literatura konuetan. Hizkuntzari dagokionez, ez da berdina nobela baterako edo gizarte baterako aritzea. Bestalde, egunerokoak ematen duena ere hor dago. Soroak pilotaren inguruan zio-

en bezala, uste dut idazle ofizioari buruz nik adina dakitenak asko direla, baina gutxi nik baino gehiago dakitenak. Esperientzia bat badago, jakiturari bat.

Zure jarduerara aldaraziko du?

Ez zait iruditzen. Modurik zintzoenean, serio jokatzeari, kritikari jokatzeari dagokigu, norbera bere ikuspuntutik. Euskararen auzia ez da erraza. Guri eskatu behar zaigu zorrotz jokatzeari eta errealitate ondo izendatzeari.

Eta sormenerako zama bat suposatuko du?

Bi arlo oso ezberdinak dira eta ez dira nahastuko: idazterakoan, ni neu naiz, bakarka jarduten dit; eta Euskaltzaindian, gizartea da nagusi, hau da, To-

losan nola jartzen diren errotoak, edo Asteasuko eskolan haurrek zer testu dituzten ikasteko. Bi arlo dira, bata subjektiboa eta bestea objektiboa.

Nola ikusten duzu euskararen egoera?

Zaila da jakitea. Nik uste hemendik aurrera, ekonomian egiten den antzera, datu bilketak egin behar direla. Askok jokatzen da iritziekien eta gutxi datuekin. Euskararen inguruan nire fobiak ditut. Euskararen aldeko manifestazioak ez ditut maite. Zerbait errealitate denean, ez dago sinbolik, ez dago fantasmari. Euskararen inguruko sinboloek atzean ez dute ezer. Guk zerbait bultzatu behar badugu, gure hizkuntzaren etorkizuna

errealitateari lotuta joatea da, eta ez bere fantasmei.

Zer egin dezakezu euskaltzain bezala?

Hizkuntza bat bi modutan lagundu daiteke: erabilera bultzatu eta bere balioa handituz. Nire eginkizuna? Idazle batek liburuak itzultza baditu, balioaren aldetik zerbait ematen du. Nire gurasoen garaian euskara hutsaren ondokoa zen, eta orain beren seme batek liburuak beste hizkuntza batzuetara itzultza ditu.

Eskualdera etorrira, nola doa Asteasuko Ipupomamuaeren proiektua?

Dagoeneko bidean egon behar zuen. Oso luze doa eta eritimo hori ez dagokio euskarari. Hasiatik, haur eta gazte literaturako lehen mailako zentroa egitea zen helburua, nazioartean erreferentzia izatea. Euskara maila handiko gauzeekin lotu behar da. ◀

iragarki laburrak ▶

LANA

Garbitzaileak. Bi neska eskaintzen dira, orduka, garbiketan aritzeko: etxebizitzak (garbiketa osoak), sukaldeak, tabernak, atari eta eskaratzeak (bizilagunen elkarteak), lokalak, obrak... Eskarmentu handia. Deitu 657 71 96 17 edo 943 68 30 57 zenbakietara.
Ileapantzaileak. Ileapaindegirako langileak behar dugu, lanegun erdirako. Bidalai curriculum-a eta argazkia Tolosako lurre auzoa 20, 3. B helbidera.

SALGAI

Etxebizitza. Alton, etxebizitza bifamiliar berria. 200 m²ko etxebizitza eta 160 m²ko lorategia. 652 77 79 59.
Lokalak eta garajeak. Leitzan, lokalak eta garajeak salgai, eraikuntza berrian. Deitu 637 80 60 44 zenbakira.

GALDUTAKOAK

Bi zakur. Bi zakur galdu dira Ibarren. Artzai zakurra eta setterra. 665 72 80 79

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisua Belate, 12. 75 m² kanpoaldera begira.
Salgai (Tolosa). Pisua San Frantzisko, 17. 140 m². Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa). Pisua Larramendi kalean. 112 m².
Salgai (Tolosa). Lokalak, Amarotz auzoan, Kale Nagusian eta Belate ibiltokian.
Salgai (Ibarra). Lokala 60 m².
Salgai (Tolosa). Garajeak Plaza Zaharrean, Pedro de Tolosa eta Leidorren.
Alokatzeko (Anoeta). Pisua guztiz prestatua.
Alokatzeko (Tolosa). Lokala girotua, Foru kalepean.
Alokatzeko (Tolosa). Bi lokal komertzial ondoan, Laskorain kalean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurritara

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

PILOTA ▶

Tolosaldeko III. Pilota Topaketak

Tolosaldeko III. Pilota Topaketak jokatuko dira gaur. Zizurkilgo Intxaurre pilotalekuan jokatuko diren partidak 10:30ean hasiko dira. Bertan senior mailakoek, eskuz banaka, lau t'erdiko nor-gehiagokak jokatuko dituzte. Parte-hartzaileen artean izango dira Pikabea eta Galarraga Aurrera-Saiazekoak; Beloki, Martinez eta Zelaia Amezketakoak; eta Behar Zanako Aranburu I.a. Bestetik, Anoetan, 15:15ean, eskuz binaka ariko dira alebinak. Hemen partidua bakarra jokatuko da, Usandizaga-Alkain Asteasukoen eta Urkola-Otaño Behar-Zanakoen artean.

ANOETA ▶

Humus eta Desoreka Gaztetxean

Humus eta Desoreka taldeek joko dute, gaur, Anoetako Gaztetxean. Zuzeneko emaldia gaueko hamaiketaren hasiko da.

VILLABONA ▶

3. saioan apustu probak izango dira

Gaspe Olinpiadetako hirugarren saioa jokatuko dute gaur, 10:00etan. Gaztetxean. Bertso eta marrazketa proben ondoren, apustu proba egingo dute gaur: besteak beste, erlojupeko talde eskia eta sega apustua izango dira. Orain arteko emaitzen arabera Jun da bertan taldea dago lehenengo postuan, 15 punturekin. Jarraian Motxinoak, 13rekin, eta hirugarren Gaztetxea, 11rekin.

ALKIZA ▶

Aste Kulturala antolatzen bilerak

Aurtengo San Isidro jaietarako Aste Kulturala antolatzen bilerak deitu dute Alkizan. Bilakura datorren asteartean, hilaren 4a, egingo dute, 20:00etan, Kultur Etxean. Honekin, Alkizako Udalak herri-tarrak gonbidatu nahi ditu antolatzen lanetan parte hartzen.

ADUNA ▶

Loatzokoan kontzertua etzi

Apirilean zehar hainbat emaldia eskainiko ditu Loatzoko Musika Eskolak. Lehenengo etzi izango da, Adunako udaletxe azpian, 19:00etan.

TXARAMA ▶

Rufino sagardotegira irteera

Hilaren 8an, Rufino sagardotegian bazkaria antolatu du Aurten Elkarrekin. Txangoa egiteko autobusa 13:00etan abiatuko da Txaramatik, geldialdiak eginez Tolosa, Irura, Anoeta eta Villabonan. Bidaia 30 euro kostatuko da, eta izena emateko epea bihar amaituko da.

TOLOSA ▶ MUSIKA



Sakro kontzertua Tolosan

E. Ezeiza ▶ Eduardo Mocoroa tolosarraren eta Josef Gabriel Rheinbergerren lanak joko ditu bihar, Donostiako San Ignazio elizan, 20:00etan, Tolosaldeko Musika Eskolako Arimaz kamara orkestrak, Kepa Martinez de Albenizen zuzendaritzapean. Donostian joko duten lehen emanaldia izango da. Saio bera entzungai izango da hilaren 7an Tolosan, Santa Claran. HITZA

BIDEGOIAN ▶ KIROLA

Motorrak berotzen hasi, VII. Ikasberri Rallysprinterako

Lehenengo auto gidariak Bidegoiandik abiatuko dira gaur, 15:00etan

ESTI EZEIZA

Zazpigarren Ikasberri Rallysprinta jokatuko da gaur Bidegoian eta Azpeitia artean. Lagun-arte Escuderia eta Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta. Errezil enguruko errepedeetan zehar, ia berrogeita hamar gidari ikusi ahal izango dira beren abileziak erakusten. Lasterketa hau Euskal Herriko Txapelketarako puntuagarri den laugarren saioa da.

Proba honek indar handia hartu du dagoeneko euskal autozaleen egutegian. Lasterketa honekin hasiera emango diote Copa Propulsion Traserari. Rally hau GI-2634 errepedean gauzatu da, honek Bidegoian eta Azpeitia herria lotzen ditu Errezildik igarota. Aurtengo,

ikusgarritasuna handituz, ibilbidea beheranzko norabidean soilik egingo da.

Goizean egiaztapen administratiboak eta teknikoak egin ondoren, ibilgailuak Asistentzia lekura joango dira, Azpeitiko Landetako poligonon. Lehenengo parte-hartzaileak Bidegoiandik abiatuko dira 15:00etan. Hurrengo bi mangak 16:10ean eta 17:10ean hasiko dira. Nahiz eta lasterketa Tolosaldeko igaro, parte-hartzaileen artean ez da eskualdekorik egongo.

Lasterketako faboritoen artean Ramon Apalantza errezil-darra eta Santi Artetxe bizkaitarra aurreikusten dira. Lehenengoak Michubishi EVO Varekin lehiatuko da. Bestea, berriz, Peugeot 307 WRCarekin. Lehia gogorra aurreikus-



lazio Ikasberri Rallysprinta. I. T.

ten da, Artetxeren auto indartsuaren eta Apalantzaren irabazteko gogoaren eta ibilbidearen ezagutza direla medio. Hala ere, ezin ahaztu Joseba Zapirain eta Joxe Labaka gidariak. Antolatzaileek lasterketara joaten direnei gogorarazi die leku seguruetan jartzeko eta ingurumena zaintzeko.

1. saria: 300 €

2. saria: 200 €

Villabonatar onenaren saria: 175 €

Idazle gaztearen saria: 125 €

villabonako amodiozko gutunen lehiaketa

2 0 0 6

Lanak apirilaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira

Oinarriak: Villabonako Euskara Zerbitzuan
Tel: 943 69 35 01 / maite@villabona.net

Zuloaga & Gureak-en zure landarea dago.

Maite, Gorria, Edurne, Juri, Ander, Ohana, Laura

“Zatoz gura instalazio berriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dihoan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

Ramón Zuloaga (Zuloaga & Gureak-eko Gerentea)

943 356 108 - Iparralde bidea z/g. 20014 Astigarraga. Futbol zelaiaurrean.

ZULOAGA & GUREAK
zure konfiantzazko gardena

EUSKAL KANTU TXAPELKETA ▶

NEREA URBIZU

Eskualdeko bederatzari ordezkari (bakarlari, bikote eta talde) sailkatu dira Gipuzkoako Kantu Txapelketako finalera. Gaur jokatu da, Azkoitian, 18:00etan. Guztira, 20 talde pasatu dira finalera.

Bi urteko etenaldiaren ostean, aurten berreskuratu dute Gipuzkoako Kantu Txapelketa, Nafarroako Kantu Txapelketakoen bultzadaren laguntzarekin, han sendo baitago duela hainbat urte. Bi kanporaketa egin dituzte: bata Urretxun eta bestea Oiartzunen. Urretxun 13 partaide aritu ziren, eta Oiartzunen 20.

Epai lanetan Mikel Markez, Nerea Ugarte eta Mari Jose Arregi izango dira. Lan gogorra egin beharko dutela argi dago: maila ona omen dago aurten, eta ez da batere erraza zuzen epaitzea. Eskualdeko parte-hartzaileekin mintzatu da HITZA finalera begirako inpresioez.

Garikoitz Lobregat. Txistulari altzotar hau lehen aldia du txapelketa honetan. Xanet gitarrarekin ariko da, bakarrik kantuan. «Eskentokian tentsio pixka bat behar da», bere esanetan.

Izaro Saizar. Harentzat ez da berria txapelketa hau, Nafarroakoan parte hartu baitu noizbait, sariak eramanez gainera. «Oso giro polita ikusten dut txapelketa honetan, eta jende berri asko ezagutzen da». Gipuzkoako Txapelketak indarra hartuko duela espero du berastegiarrak, «aurten hala izan baita».

Alaitz Ormazabal eta Lierni Aburuza. Ormazabalek bana-ka eta binaka abestuko du. Beste zizurkildar batekin ariko da binaka, Aburuzarekin, alegia. Kristina Solano irakasleak animatu zituen. «Txapelketan bertan dagoen giro ona» azpimarratu du Ormazabalek.

Narao Geresta. Bertsolaritzan aritua eta soinu-jole da. Bakar-

Finalean, eskualdeko bederatzari ordezkari

Gaur jokatu da Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako finala, Azkoitian; HITZAekin mintzatu dira Tolosaldekoak

lari asteasuar honek uste baino maila hobearrekin topatu dela aitortu du. Ez zuen gainera, finalera pasatzea espero. «Bai parte hartzen eta baita ikusle bezala ere oso gustura sentitu nintzen». Ainhoa Ansa txapelketako antolatzailea izan zen honetara animatu zuena.

Piperminak taldea. Kristina Solanok esan zuen moduan, «oso-oso altua izaten ari da maila. Noizbait egin izan dut epailearen lana txapelketan, eta ez nuke aurten haien larrutan egon nahi».

More taldea. Alexander Padilla billabonatarrak parte hartzen du talde honetan. Harekin Donostiako kantari batzuk ditu. Finalean «ilusioarekin» abestuko dutela dio gazte honek. Haren iritziz, «Urretxun ikusitako maila altua izan zen». Bere lehen aldia du txapelketa honetan.

Zugarramurdi. Josune Arretxe Zugarramurdi taldean ariko da kantari bere hiru lehengusurekin batera. «Ondo pasatzeko aurkeztu ginen. Maila oneko



Narao Geresta asteasuarra, Oiartzungo kanporaketan. HITZA

jendea ikusten dut, eta baita gu bezalako jendea ere», dio Amasako gazte honek.

Izaro Otaegi eta Aiora Irazueta. Villabonakoa eta Zizurkilgoa dira, hurrenez hurren. Tri-

kitixarekin eta panderoarekin jotzen ohituta badaude ere, «ez da berdina horrenbeste jenderen aurrean abestea». Urretxun aritu ziren kantuan eta binakakoen maila ikusi zuten baxuen.

ANOETA ▶

Agenda 21en bigarren Herri Batzarra astelenenean

Lehen batzarrean erabakitako gaiak eztabaidatu eta forma emango diete

ERREDAKZIOA

Anoetako Tokiko Agenda 21 prozesuak aurrera jarraitzen du, iraunkortasunaren bidea herrian finkatu nahian. Hala, «guztionean partaidetza ezinbestekoa» dela azpimarratu dute bultzatzaileek.

Lehendabiziko batzarrean aholkularitza-epresak aurrez landutako diagnostikoari buruz herritarren ekarpenak jaso zituzten. Bilera horren ostean, diagnostiko osatuago bat egin dute. Eta hurrengo urratsa Ekintza Planaren oinarri izango diren helburuak jorratzea izango da, «diagnostikotik ateratako ondorioak abiapuntutzat hartuz». Diagnostikoaren laburpen taula eta helburuak udaletxean eskuragarri dardela gogoratu dute.

Helburuak eztabaidatzeko aukera izango da deitu duten bigarren batzarrean. Astelenenean izango da, 19:30ean, udaletxeko areto nagusian. Proposamenak ematera animatu dituzte herritarrek.

Udaltalde 21 Ernioaldeak

Udaltalde 21 Ernioaldeak Parte hartze prozesuarekin jarraituz Herri Batzarrak ospatuko ditu diagnostikoaren ondorioak eta helburuak aztertzeko. Horretarako zuen iritzia funtsezkoa da. Zuen partehartzea garrantzitsua da!

Anoeta apirilak 3, 19:30tan Udaletxean
Asteasu: apirilak 5, 19:30tan Udaletxean
Aduna: apirilak 5, 20:00tan Kultur aretoan
Iruña: apirilak 6, 19:15tan ikastolan
Hernialde: apirilak 10, 20:00 Soziedadean
Villabona: apirilak 11, 19:30tan Udaletxean

PARTAIDEAK:

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak martzoko eskubidea du

Haur eta bihurri,
gazte eta
errebelde!

Ezkertiar borrokalarari oren helburua gizarte justuago bat sortzea da, eta gizarte justuago batekin gizaki justuagoa, humanoagoa. Zentzu honetan, heziketaren garrantzia ukaezina da. Gaur heziko ditugun haurrek biharko gizarte osatuko dute, eta beraz, heziketa horren isla izango den gizarte bat eraikitzen ari garela esan dezakegu.

Aurrera jarraitu aurretik, garrantzitsua da azpimarratzea, heziketaz ari garenean, zertaz ari garen. Heziketa *formala* eta *informala* bereiz ditzakegu. Formala eskoletan ematen duguna da; bada orain gutxi gaztelaraz irakurri nuen esaldi bat: «*Excelente maestro es aquel que enseñando poco hace nacer en el alumno el gran deseo de aprender*», eta horixe da eskoletan lortu beharko genukeena. Informala, berriz, etxean, herrian, komunikabideetan ematen dena da. Biak dira garrantzitsuak eta eraginkorrak, eta horregatik ezin gaitezke batetan zentratu; heziketaz mintzo garenean bere zentzu zabalenean mintzo gara.

Euskal Herriak, mendeetan zehar, bere hezkuntza sistema propioa eraiki du biziraupenerako: ahoz ahokoa, belaunaldiz belaunaldi transmititutakoa... Gure herriak, herri zapaldua izanik, bere izaera mantentzea lortu badu, ahoz ahoko heziketari esker lortu du, hainbatetan irudikatutako sutondoko kontakizunei esker, sukaldetan etxeko otorduetan egindako elkarrizketa edo komunikazioan, lagun arteko bilerei esker... eta horrela XXI. mendean, zapalkuntza eta errepresio guztien gainetik, Euskal Herriak herri izaten jarraitzen du; ezaugarri propioak, mendez mende mantendu dituen herria.



Baina herria ez da deus abstraktua. Herri bat herritarrek osatzen dute, eta, beraz, eurak dira hezitzaileak. Herri aske bat lortu ahal izateko, pertsona askeak hezi beharko ditugu. Hortxe hezkuntzaren erronkarik handiena: pertsona askeak sortzea; kiritikoak, borrokalarriak, iraultzaileak, berdintasunaren babesleak, laguntzaileak, pentsalariak... Gizaki humanoagoak, alegia. Lan hau, baina, haurra jaio bezain laster hasten da. Heziketa ez baita urte zehatz batzuetan ematen, heziketak iraunkorra behar du izan; jarraia urteetan zehar.

Egun, hain eraginkorrak diren teknologia berrien aurrean, argi dago gurasoen hezitzaile lana biderkatu egin dela. Teknologia berriak ez dira txarrak, baina bai haien erabilpena, eta hor dago gurasoen lana, egin beharra; erabilpen egoki horietan hezi eta hazten laguntzea.

Gure helburua haur ameslari eta bihurriak hezitzea izanda, kontuan hartu behar dugu haurrek gurasoen imitatzeko ikasten dituztela hainbat eta hainbat jarrera, eta, beraz, guk geuk hasi beharko dugu ezaugarri horiek gartzatzen. Haurra ez da ameslari izango guk geuk hala esaten diogulako, baizik eta gu ere ameslari ikusten gaitulako. Nola? Jolasekin adibidez. Egun, jolasak hain zehaztuak diren honetan, imaginazioa eskatzen duten jolasen erabilpena bultzatu behar dugu: etxetxo bat oparitu beharrean, eraiki dezagun etxetxo bat daukagunarekin; erabili ditzagun guztiz definitu gabe dauden panpinak imaginazioa erabili ahal izateko; ipuinak irakurketa (Euskal Herriak mitologia aberatsa du), istorio berriak sortu... Haurrek amets egin behar dute.

Amesten ez dakiten haurrek nola amestuko dute, ba, etorkizunean ere gizarte hobeago batekin? Eta, beraz, nola borrokatu amestu ezin duten gizarte hobeago horren alde?

Ezin dugu ere ahaztu haurraren berezko ezaugarrien barnean dagoela bihurri izatearena. Bihurrikeria ez da txarra, ezaugarri bat besterik ez da. Hor kokatzen da ere helduon lana, bihurrikeria hori bideratzean, eta inoiz ez desagertzen. Bihurrikeria bizia da haur batengan, eta beraz, bizitzaren utzi behar diegu, erakutsiz, norbera bizi ahal izateko aldamenekoarekin errespetua ezinbestekoa dela.

Azken batean, haurrei, haur izaten uztean datza. Amestu dezatela, jolas daitezela, korri egin dezatela eta koskorrekoak hartu ditzatela, zikindu daitezela, bihurrikeriak egin ditzatela... bizi daitezela eta esperimentatu dezatela, gurasoen *zaintza-pean* baina inoiz ez kontrol-pean, horixe baita gurasoen lana, haurtzaroa bideratzea, gaztaroa... errebelde izan dadin.

Gazte errebeldeak sortu behar ditugu, ezarritako egoeraren aurrean, pentsatzen jarriko diren gazteak, hausnartuko dutenak eta gaztetasunaren indar ilusio eta freskotasun osoz euren ideia eta proiektuak aurrera aterako dituzten gazteak.

Hausnarketatxo honi amaiera emateko Ernesto Guevara *Che*-ren esaldi batekin amaitzea gustatuko litzaidake, *Che*-k bere alabari idatzia: «*Sobre todo, ser siempre capaz de sentir en lo mas hondo cualquier injusticia cometida contra cualquiera en cualquier parte. Se justa, se valiente y seras siempre respetada*».

EKAITZ ARAMENDI ETA
EIDER IURKO ▶ IBARRA
(CURTIS-EKO ESPETXETIK)

Tregua eta
borroka

Frantziako Meaux kartzelan (950 kilometro) dauden euskal preso politiko guztiak (hiru) gose greba mugagabean aurkitzen dira, euren eskubide minimoen alde.

Haimar Altunak (lizartzarra), Oier Goitiak eta Urtzi Zubizarretak martxoaren 20an hasi zuten protestaldia eta gaurko egunez, oraindik, berdin jarraitzen dute.

Esan behar da kartzela horretako preso guztiak 9 edo 10 ordu izaten dituztela gutzira, hilean, bisitetarako, eta hauek, berriz, guztira ordu eta erdi izaten dute hilean. Beste aldetik, kartzela bertan dispersatuak aurkitzen dira, eta estorsio ekonomikoa, mafioso eta lotsagarria jasaten dute. Haimarri azken hilabeteetan 409,60 euro kendu dizkiote eta Urtziri, aldi, diruaren justifikantea bai, baina dirurik ez. Guztia arduradunak, Frantziako *demokratak* (mafiosoak eta faxistak esango nuke nik) direrarik. Berriz ere, euskal presoak, denon eskubideen alde, bide bakarra erakusten digute: borroka.

Haimar, Oier eta Urtzi, zuekin gaude eta animo!

KOLDO ALTUNA ▶ LIZARTZA

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Elkartasuna
adierazi diote
Altunari

Martxoaren 20an ekin zion gose grebari preso politiko lizartzarrak



Lizartzako Etxerat-en prentsaurrekoko une bat, herenegun. i. t.

IÑIGO TERRADILLOS

Lizartzako Etxerat-ek elkartasuna adierazi dio martxoaren 20an gose grebari ekin zion Haimar Altuna preso politiko lizartzarrari. Frantziako Meaux-eko espetxean aurkitzen da, beste bi preso politikorekin batera, eta «bizi baldintza duinak exijitzeko» ekin diote hirurek gose grebari.

Etxerat-ek azaldu bezala, «euren egoerarekin, berriz ere, agerian geratzen da Frantziako espetxe politikarekin neurri bereziak hartzen dituztela euskal presoenganako, eta horrelako gertaerekin beraiek onartzen dutela gure senideak preso politikoak direla». «Presoen eskubide murrizketak ere, senideekiko erasoak dira: presoak oraindik eta bakartuago sentitzea dakar eta, senideei eta lagunei beraien herri izatea ukatzen zaie, kezka, ardura eta ezinegona areagotuz». Bestalde, Etxerat-en ustez, «Euskal Herriari bizi duen garai itzaropentsu honetan, honelako neurriak» ulertezinak eta onartezinak dira, eta Frantziari eta Espainiari espetxe politikarekin bukatzea exijitzen diete.

Honen aurrean, Etxerat-ek Lizartzako presoari elkartasuna adierazteko, sinadura bilketari ekin diote, eta Ostatuan, Itzalan eta Jose Marinean jasoko dituzte. Horiek eskutitz batean espetxeko zuzendariarengaino helarazteko asmoa dute.

13 EGUN GOSE
GREBAN ▶

Haimar Altuna lizartzarra, eta Meaux-eko espetxean dauden beste bi preso politikoak, Oier Goitia eta Urtzi Zubizarreta, gose greban hasi ziren martxoaren 20an, «giza eskubide minimoak ere ukaturik dituztelako»; Altunak 5 kilo eta erdi jaitsi ditu, eta beste biek 6 eta 7, hurrenez hurren. Gubxienez, hileko ordubeteko 2 bisita izatea eskatzen dute:

▶ Hilean 2 bisita dituzte, bata ordu erdikoa eta ordubetekoa beste, «preso arruntek» 8 edo 9 ordukoak dituzten bitartean.

▶ Hilean 200 euro baino gehiago badituzte, %20 kartzelarentzat geratzen da, eta kasu batzuetan %40 ere ken diezaitete.

▶ Epaeleak baimena emanda dauka, kartzelan dauden 3 preso politikoak segidako zeldetan egoteko, eta hasiera batean kasu egin bazuten ere, egun sakabanaturik dituzte.

▶ 3 hilez behin zeldaz aldatzen dituzte, aldiro egokitu behar izaten dituztelarik.

▶ 21 ordu zelda barruan egon behar dute; goizez ordu eta erdi, eta arratsaldez beste ordu eta erdi izaten dute patioa.

LEITZA ▶ POLITIKA

Aizpuru aske utzi dute

Atzo gauean atera zen Aranjuezeko (Espainia) kartzelatik; Donostiako Grosen egin diote aurreneko ongietorria

JAIONE ASTIBIA

Eneko Aizpuruk herenegun, gaueko zortzirik aldera, utzi zituen atzean lehengo uztaillaz geroztik preso egon den Aranjuezeko (Espainia) presondegi-ko ateak, eta bere senideek egun osoa kartzela atarian zain egon ondoren, azkenik bersarkatu ahal izan zuten. Halaxe adierazi zioten HITZARI, jada preso politiko ohi leitzarraren senideek.

Bezperan Askatasunak ira-

garri bezala, Aizpururekin batera, 60.000 euronako bermea ordainduta, aske gelditu ziren modu berean Oier Oa eta Gari-koitz Mujika ere. Zubimendik espetxean jarraitzen du. Segiren aurkako auziarengatik espetxean zeuden lau lagunetik hiru aske utzi dituzte, beraz.

Hala, berdentzabart goizaldeko hirurak aldera iritsi omen zen Donostiako Grosera Aizpuru, baita Oa ere. Bertan eskaini zioten aurreneko ongietorria hara bildutako 150 lagunek.

Hori baino lehenago, ordea, lekukoek jakinarazi dutenez, «tentsio oneak bizitu» zituzten. Zehaztu zuten, «Antiguoko anbulategiaren parean, Oa eta bere gurasoak, ordu erdi batez atxilotuta eduki zituen Ertzaintzak, gaztea bilatze eta atxilotze agindupean zegoela eta». Han eta ongietorria egiteko zain zeuden lekuan ere «une estuak igaro genituen gertakari horrekin», adierazi dute. «Pape-rrak argitu zituztenean» aske utzi omen zituzten.

GIZARTEA ▶

Saharako haurrak hartzeko deia egin dute

Udan basamortuko kanpamenduetan ohikoa da 45 gradutik gorako beroa egitea

J. ASTIBIA

Saharar Herriarekin Elkartasuna Taldeak herrialde hartako haurrak udan etxean hartzeko deia egin du.

Leitzaldeko herritarrei zuzendu zaizkie beste urte batez, beste behin ere gai honen inguruan ohiko duen elkartasun adierazpenarekin jarraitzeko. Hala, udan Saharako haur bat etxean hartu nahi izanez gero, izena emateko lekuak izendatu ditu. Leitzaldean, Maimur eta Astiz liburutendetan egin daiteke; Male-rrekarako eta Bortziritarako, 948 45 17 87 telefono zenbakia egokitu dute; Baztanerako, berriz, 948 58 12 77a. Izena apirilaren 10 baino lehen ematea gomendatu dute.

Zehaztu dutenez, Nafarroan 80 familia behar dira Saharako haurrak haien etxean hartzeko. Iaz, 16 haur etorri ziren eskualdera, hauetatik 5 Leitzara.

Saharako herritarrak Algerian, Tinduf aldean jarritako kanpamenduetan bizi dira



lazio etorrerako irudia. J. ASTIBIA

desherriratuta. Saharako basamortuan, adobe-zko eraikinetan edota *haima*-k babes bakar dituztela, udan harezko jasa erabatekoei eta ohiko diren 45 gradutik gorako tenperaturari aurre egin behar izaten die. Aurtengoa, ordea, ja-sangaitzago suertatuko zaie, otsailean izan zituzten uhul-deek zutena birrinduta utzi baitzuen. Umeak dira eragin handiena pairatzen dutenak.

LEITZA ▶ KIROLAK

Ligan bigarren lekua ziurtatzeko aukera dute

Aurrerak Baztanekin, zuzeneko arerioarekin, jokatu du Arkixkilen bihar arratsaldean

J. ASTIBIA

Partidu erabakiorra dute aste-buru honetan Aurrerako futbolariak. Irabazita, sailkapeneko bigarren lekua ziurtatuta utziko lukete, eta horrekin igoerako ligaxkan parte hartzeko bidea.

Elizondoko Baztan taldearekin jokatu dute partidua bihar Arkixkilen, 17:00etan hasita. Hain zuzen ere, sailkapenean hirugarren dagoen taldea da, leitzarrek baino puntu bat gutxiagorekin, 44 punturen jabe da, eta partidua 20 partidua. Hurrengo jardunaldietan taulako beheko postuetan dauden taldeak dituzte arerio biek ala biek, eta hauxe izanen dute elkarren aurka jokatu duten

azken aukera denboraldi honetan, eta zirt-zart egitekoa.

Halaxe baieztatu zuten Aurrerako ordezkariak ere, «Baztan puntu bakarrera dago, baina partidua gehiago jokatu ta. Hortaz, hori irabaziz gero, lanak ziurtatuta genituzke».

Nabarmentzekoa da, bestalde, aurreko bi jardunaldietan 12 gol eginda etorriko direla kanpotarrak eta oso indartsu ari direla lanean. Hauek 2. leku horren bila heldu direnez, partidua gogorra izanen da, bi taldeek ere asko baitute jokoan.

Aurrera gazteak, berriz, partidua gaur bertan du jokatzeko, Beti Onak taldearen aurka, 17:30ean hasita. Atarrabiarrak 9. doaz, zehazki Larraonako eta Leitzako taldeak partekatuta duten 10. lekuaren aurretik.

LEITZA ▶

Izoziko Ama abesbatzak kontzertua eskainiko du

Bihar meza nagusia ondoren, elizan egingen du emanaldia Soraluzeko taldeak

J. ASTIBIA

Bihar eguerdian Izoziko Ama abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan, meza nagusia bukatutakoan.

Aurretik, hamaiketan hastera den eliz funtzioan ere kantu pare bat egingen dituztela adierazi zion atzo HITZARI, Aitzol Ostagaine, Soraluzeko abesbatzaren lehendakariak. 1992an sortu eta 35 lagunek osatutako koru honek «sakroa, soinu-banda pare bat eta batez ere euskal kantak» eskainiko dituela iragarri zuen.

LEITZA ▶ KULTURA

Ipuin-kontalaria Torrean

Bihar 18:00etan 'Baltziskueta'-k eskainiko du

J. ASTIBIA

Umeentzat ipuin-kontalaria ekarriko dute bihar Torrean tabernara. 18:00etan hasita, *Munstroaren begiak* ipuina kontatuko du *Baltziskueta*-k.

Baltziskueta, alegia Aitor Txarterina, idazlea eta hain-

bat irratitako kolaboratzailea da. 1997az geroztik ari da ipuin-kontalaritzan eta haur-errentzat egindako antzerki lehiaketetan lehen saria eskuratu du hainbat urtetan.

Biharko saioa umoretsua izanen omen da, «3 urtetik 74 urte bitarteko umeentzat».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu-Leitza-Lizartza-Tolosa-Villabona-Zizurkil.

Konponbide garaia da lelopean, gaur Bilbon egingo den manifestaziorako autobusak: Asteasukoa plazatik, 15:15ean. Leitza 14:30ean, ohiko lekutik. Lizartzakoa 15:30ean, Joxe Mari aparkalekutik. Tolosakoa 15:30ean, Triangulotik. Villabonakoa 15:30ean, Olaederratik. Zizurkilgoa 15:30ean, Joxe Arregi plazatik.

Amezketak. Hirugarren urtez Ugarteko gazteek sagardotegira joateko autobusa antolatu dute, Astigarragako Petritegira, 30 euroren truke (autobusa eta bazkaria). Txartelak, Goikoebenea tabernan.

Anoeta. Herriko festak antolatzen bilera. Hilaren 4an, asteartea, 19:00etan, udaletxean.

Tolosa. Dantzari Txikien festa eta erromeria, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako 4 taldeekin: 10:30ean kalejira; 12:00etan, emanaldia; 13:30ean, bazkaria; 16:30ean, urme jaia; 19:00etan, triki-poteoa; 21:30ean, afaria Abastosen.

Tolosa. Atsedena aisialdi taldeak apirilaren 18-19-20an Gaintzara joateko irteera antolatu du katekesiko haurrentzat. Joan nahi izanez gero 680 27 74 11ra deitu behar da.

Tolosa. Kirikiño aisialdi taldeak, urtero legez, guraso formazio eguna egingo du, Hirukide Jesuitinatan. 10:00etatik 13:30era, otoitza, hitzaldia eta hamaiketako izango dira; *Hezkuntza afektibo-sexuala* saioa eskainiko du Eduardo



Kalean da Izeba Pilarren ilobak taldearen maketa

ANOETA ▶ Izeba Pilarren ilobak talde anoetarrek beren lehendabiziko lana aurkeztu zuen, atzo, Gaztetxean. Musikherrria herri disketxearekin maketa kaleratu du, eta herrikideen artean ospatu nahi izan zuen lorpen hori. Hala, maketako zazpi kantak jo zituzten

anoetarrek zaleen aurrean, eta lan berriaren nondik norakoak ez azaldu zizkien entzuleei. Ondoren, meriendatxoa hartzeko aukera izan zuten Gaztetxera bildutakoek. Batera eta bestera zuzeneko emanaldiak ariko dira orain Izeba Pilarren ilobak. N. LATABURU

Dovale Muiños psikologo eta nerabeen hezkuntza afektibo-sexualean adituak. 14.00etan, bazkaria egingo dute; 16:00etan, kirol saioa.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jesus Lopez Zulueta. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.
Tolosa. *Poesia mobil.* Enrique Zalduaren pinturak. Hilaren 22ra arte ikusgai, Aranburu Jauregian.

MUSIKA

Anoeta. Humus eta Desoreka. 22:30ean, Gaztetxean.
Ibarra. Su Ta Gar. 23:00etan, Gaztetxean.

ZINEMA

Villabona. *Iratxoeren erregea.*

Haurrentzako emanaldia, euskaraz. Bihar, 17:00etan, Gurea zinemaren. Sarrera: 2,50 euro.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi ebea. 112.
Tolosa. Morant, R. Zaballarreta, 1. 943 67 38 19.

IRRATIA

Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)
10:30-13:00. *Hitza* hegan magazina: elkarrizketak, *Mundurako leihoa*, kolaboratzaileak, agenda, porra, disko eskainiak...

Goiko irratria (107.0 FM)
13:00. *Kornera* magazina. Posta elektronikoa: kornera@hotmail.com

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Zorionak, Arkaitz Gartziaarena! 3 urte betetzearn aita, ama eta Maialenen partetik.



ZORIONAK

Asier eta Garazi. Zorionak eta egun ona pasa, Kristina eta Oskarren partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tarte